

Bizimodua zor

MUNSTISUE-CC BY SA



Haritzari zor diogu, besteak beste, gure bizimoduaren maila.

OXALIS LATIFOLLA, Lekeitio-bedarren herriko Luisek idatzi dit. Zori onen peskizan brasildarrek jartzen dituzten zazpi landareen berri izan bezain pronto euskaldunok zein zazpi gurtu beharko ote genituzkeen galdetu dit. Nire erantzuna, zazpi ez baizik eta gutxienez hamahiru beharko genituzkeela goratu. Zein landarek ahalbidetu dute gure kulturak irautetik bizitzarako kokka gainditu dezan?

Lehena eta garrantzitsuena hurritza, *Corylus avellana*. Milaka urtetan jaki. Nahikoa hur izanez gero etor dadila glaziazio beltzenero negu gorriena. Era berean makila, parda, itxitura, eraikuntzan hormagai... Zertan ez dugu hurritza lagun izan? Etengabeko

omena merezi du bai, eta poztu naiz Urretxuko Udalak bere armari berrian sartu duela ikustean.

Hurrena maspila edo basagurbea, *Sorbus torminalis*. Hori ere zenbat urtetan bilatu izan ote dugu... Eskuarterako zur bikaina izateaz gain fruitu koxkor gutizia eskaini digu milaka udazkenetan.

Hagina, *Taxus baccata*, baita ere. Auzokoak pozoitzeko, dugun zurik onena eta milaka urte biziz gure odolaren antzinasuna eta etorkizun oparoaren adierazle.

Fraxinus excelsior, lizarra ere bai. Zur ona, baina batez ere hosto bikaina, belardiak gorritzen dituen udan eta azala ospelduz gorritzen duen neguan aziendarentzat jate-na. Eta gure gurtzen lotura nagu-

sia, zeruak eta lurak elkartzen dituen zuhaitz nagusia, tximistak etxetik urruntzen eta atariak babesten dituen.

Mihura, *Viscum album*. Sagarrondo, ezki, astigar... egunerokotan beharrezko ditugun zuhaitzen gainean garatzen duen bizimodu bizkarroi ulertezinak, naturari diogun etengabeko zorra bere bidez irudikatzen eraman gaitu.

Sagarrondo, *Malus x domestica*. Ahosabaiaren gailurrerako bidea erakusten milaka urte egin ditugurekin. Fruitu guztien ordezkari, eta aldaera batean ez bada bestean haien denen kolore, usain eta dasta guztiak biltzen dituen espeziea. Eta, gure kulturaren garapen sozioekonomikoan nahitaezkoa izan den sagardoaren iturri.

Haritza, *Quercus robur*, Quercus tar guztien izenean: ametza, abarritza, artea, artelatza, erkametz... Herrigintza bere itzalpean babes-tu eta sustatu du. Ezkurra jaki eta okintzarako iringai. Hostoa, etxe-ko animalia guztiontzat azpitarako orbel. Eta zura. Ummmm zura! Ikazkintzarako, upeletarako eta eraikuntzarako. Etxegintzarako ezin hobea: gurdi, arre, etxebizitza eta tankerako egituretarako, alegia. Baita ontzitarako ere. Sagarrondoari eta haritzari zor diegu gure bizimoduaren maila. ■



2.778

Asma-belarrak (*Datura stramonium*) asma sendatzen du berarekin egindako zigarretak errez gero...

Europako eta Asiako zenbait tokitan asma-belarra pozoiz gisa erabili izan da, erailtzeko bezala buruaz beste egiteko. 1950 eta 1965 urteen artean Indiako Agra hirian, Taj Mahalaren hirian, asma-belarra jateagatik hildako 2.778 lagun heriotzak ikertu zituzten. Milioi eta erdi biztanleko hirian, bi egunetik behin asma-belarraz hildako bat... ■



EKILORE
Lorzaintza eta loradenda

© 943 795 546

Elorregi bidea · Arrasate (Gipuzkoa)